

Pragmatismoen konfrontazioa



Iñaki Antiguedad
EHU-KO IRAKASLEA

Mundu poliedrikoa da hau, gero eta konplexuagoa; likidoa edo. Batzuentzat sikiera gaurkoa ez da iraganean amesten genuen gero hura. Denetariko egon da orainoko bidean, baina gauden puntuari gaude, ez beste inon. Eta gauden puntuari da gaurko abiapuntua. Pragmatismoa? Bai horixe! Baina kontuz, bada pragmatismo mugatua, eta mugatzailea, kudeaketaren egunerokora mugatua, eta pragmatismo eraldatzailea, kudeaketa barne hartzen duen burujabetza sozio-politikoa gauzatzeko eskumenak eskura nahi dituen.

Pragmatismoon konfrontazioan ari gara. Batzuek mugen arteko kudeaketa goستن dute, Estatuko momentuko aukera urriak baliatzen saiatuz, kudeatzeko ahalmenean pausotxo berriak emanez, sigi-saga, baina burujabetzari karkasa eta mamia ematen dizkion apustu estrategikoa inoiz heltzen ez den gero baterako utziz. Gaur, datuak datu, gurean nagusi da pragmatismo mugatzailea. Bestalde, burujabetza soziala lehenesten dugunok arazo asko topatzen dugu zabaltzen ari garen bidean. Gurea apustu sozio-politiko globala da, estrategikoa, integratzailea, erronkak perspektiban hartzen dituen... Baina, behar bada, hori berori dugu arazorik handiena: likido den gizarte bati erakargarri egingo zaion norabide alternatibo solidoa eskaintzea, apustuak inertzia asko apurtzea baitakar. Eta, momentuz, ez

gara hain onak, benetan. Ondorioz, gure apustua ez da, gaurkoz, pragmatismo mugatzailea gainditzeko bestekoa. Errealitatea errealitate.

Baina inertiak ez dira bakarrik gizaratean, eragileen esparruan ere badira; hori txarragoa da. Pragmatismo eraldatzaile bidean, geroa desberdina egingo badugu, baztertu egin behar dira iraganeko hainbat kontu zurrun. Zurruna eta solidoa ez baita gauza bera. Hortaz, gizaratean eragiteko mugimenduak ikusten ditut eraginkorrako, alderdiak baino, berriak izanda ere. Pertsonen bestelako parte-hartze politikoa ahalbidetu dezaketelako, zabalagoa, zuzenagoa; horizontalagoa instituzioen bertikala ahaztu gabe. Hala, oso positibo hartzen dut EH Bilduren birfundazio prozesua, burujabetza sozialaren bidean alderdietatik haratagoko espazio politiko-instituzional gisa sendotze aldera. Ezinbesteko jautzia da hori inertiak gainditzeko, inertziaz hartzen baitut nik batzuek alderdiari, bata zein bestea izan, eta banaketa-kuotei dieten debozio kezagarria.

Izan ere, gure prozesuak politika-eredu berriak ez ezik politika-eremu berriak ere behar ditu, burujabetza sozialaz sektore berriak konbentzitzeko, gehiengo gabe ez baita hura lortzerik. Eta horretarako, inertiak utzi eta pragmatismoari eutsi, eraldatzailea eta eraginkorra. Hiztegi berri-tuaz. ■

Ironiarik gabe



Edu Zelaia
IDAZLEA

Irria eta negarra eragin dizkidaten zenbait hitz irakurri ditut Araban gehien saltzen den egunkarian, kirol apustuen gaineko bi orrialdeko erreportaje batean. Utzidazue, bada, bertara dezadan lehen perla horietako bat, euskaratu bidenabar: “Kirola intentsitate handiagok bizi nahi duen jokalaria sozial baten bila gabiltza”. Kirolbet enpresaren marketin eta komunikazio arduraduna den Beñardo Elorzen hitzak dira arestikoak.

Irriaren gazia eta negarraren gozoa uztartzen jakin duten honako hitz hauek Eneritz Alonsorenak dira, Reta enpresaren marketin eta komunikazio arduradunarenak: “Retako langileek

prestakuntza espezifikoa jasotzen dute edozein joko-arazo antzemateko: zoritxarrez gure jardunari berez dagokion errealitatea da, baina geu gara lehenbiziko interesatuak ludopatia kasurik egon ez dadin”.

Erreportajearen izenburura eraman ditu, hain zuzen, azken hitzak kazetariak: “Geu gara lehenbiziko interesatuak ludopatia kasurik egon ez dadin”. Ironiarik gabe (nekez sumatuko duzue ironiarik Araban gehien saltzen den egunkariko erreportajeetan; are nekezago, lerro-buruetan).

Eta horra ironiarik handiena: ironiarik gabe aritzea. ■